

EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2021



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA **MAR. 17** (astz.)

eszenAZ

Azkuna Zentroko
arte eszenikoen
denboraldia
2020-2021

Eraeran + Jana Jan + EC + Killerkume

Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa




Eraeran



Jana Jan



E C (Estanis Cornella)



Killerkume

Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentalako eta soinu-arteako programak martxoaren 17an jarraituko du aurrera, Eraeran, Jana Jan, EC eta Killerkumerekin, soinu esperimentalak lantzen duen tokiko testuingurua ikusarazteko.

Eraeran pieza elektroakustiko batzuekin itzuliko da; bertan, soinu-sorkuntza kolektiboa ikertzen du, inprobisazio librearen eta interpretazioaren arteko askatasun-maila desberdineko partituren bidez.

Itziar Markiegi a.k.a. **Jana Jan** diziplina arteko artista da, marrazkilaria, zaratazalea eta performerra, hainbat artistarekin lankidetzak grafikoak, soinu-lanak eta inprobisazioak egiten dituena. Soinuaren sorkuntza eta manipulazioa, metaketa eta feedbacka aztertzen ditu, inprobisazioaren bidez eta errorea sormenez erabiliz, Sintese DIY eta gorputza sorgailu aktibo gisa baliatuz.

EC (Estanis Comella) artistaren praktika elementuak denboran eta espazioan antolatzean eta osatzean oinarritzen da; horretarako, lan-esparru zatikatuak eta esperimentalak sortzen ditu, berariazko bilbeak osatzen dituztenak, kategorizazioak eta generoak alde batera utzita, eta unitate gisa artikulatuta.

Killerkume 2012. urtean sortu zuten Bilbon **Mikel Vegak** eta **Joxean Rivasek**, eta hainbat urte daramatza Euskal Herriko zirkuitu independentean murgilduta, besteak beste, Loan, Mirage eta Ximel taldeetan parte hartzen. Europatik egindako hainbat bira dituzte bizkarrean, eta estudioko bi album (*Trautzer Blaster*, 2013an, eta *Industrial Sunbath*, 2016an); horrez gain, *White Noise Session* lana dute, 2018an argitaratua, Gaffer eta Repentino zigiluen bidez. Gainera, aurten Karlos Osinagarekin grabatutako LP bikoitza argitaratuko dute.

Erabili Bilbao Bonua edo/ eta Kultura Bizkaia Aurrera Bonua Az infon sarrerak erosteko

////////////////////////////////////

Martxoak 17, asteazkena

18:00

Lantegia 1

15€ / 12€ Az Txartelarekin

9€ / 7€ Az Txartelarekin (14 urte baino gutxiago eta 65 urte baino gehiago)

Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

Azkuna Zentroko Musika Esperimentalako Programa da Hotsetan, eta, haren bidez, hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera eman, eta sortzaileen arteko elkarketa sustatzen dugu.